

BORTIZKERIA MATXISTEN KONTRAKO
NAZIOARTEKO EGUNA
**ERASOTZAILEEK GAIZKILE ETA
GIZARTEA GAIZKIDEA**

A
N
A
R
O
A
R
E
N
N

DÍA INTERNACIONAL CONTRA LAS VIOLENCIAS MACHISTAS

MIKROMATXISMOAK - EZIKUSIARENA EGITEA - KONTROLATZEA -
KANTAI A EMOZIONALA - DESBALORIZATZEA - IRAGARKI SEXISTAK -
SEGURU GEHIEGIKERIA - ERASO FISIKOA - HILKETA -
UMILIATZEA - OIHU EGITEA -

DÍA INTERNACIONAL CONTRA AS VIOLENCIAS MACHISTAS



Lanaren
Konfederakunde
Nagusia
@LKNCGT
www.cgt-lkn.org
rojonegro.info



PLAZARATU!

DÍA INTERNACIONAL CONTRA LAS VIOLENCIAS MACHISTAS

2016

ERASOTZAILEEK GAIZKILE ETA GIZARTEA GAIZKIDEA PLAZARATU!

Azaroaren 25ean Bortizkeria Matxisten kontrako Nazioarteko Eguna dugu.

Hil, kolpatu, bortxatu, tratu txarrak eman baita esplotatzen gaituzte uneoro... Honezkerok, urte honetan 74 gizonek 74 emakume, 2 neskato eta mutiko bat hil du.

Gertakari isolatuak ez dira inondik inora ere, honek izen zehatza du: **Patriarkatua**. Hala, jende askoren isiltasuna, utzikeria, baldarkerian oinarritzen da. Are larriagoa dena, Administrazioarena, zeinak modu aktibo zein pasibo batean, bultzatu baitu ehunka urtez emakume-objektuaren eredia, bikotekide gizonen jabetza balira bezala; Eliza matxista, homofobia eta arrazistarekin gertatzen den bezala, inolako eboluziorik erakutsi ez duena; Justizia Administrazioan antzeratsu gertatu ohi da: inposatutako umeen zaintza konpartituak, tartean tratu-txar emalea egonda ere; klase politikoan bezalaxe, gertatzen ari denetik at dagoena, euren interesen eta intriga artean dabilzan bitartean.

Gaur, Azaroak 25, honakoa salatu nahi dugu: Maiz, askotan, gehiegitan, boterea eskuan dutenek baita arau egileek ere emakumeei ardura jantzi zein errua leporatzen diete existitzen den egiturazko langabeziaren kontura edota soldaten arteko desoreka, pentsioen sistema publikoen defizita, eskubideen arteko desberdintasuna, bortxaketak zein tratu txarren kontura... Horiek beroriek dira, hain zuzen ere, zuzenean zein zeharka, gure emanzipazioa eta ahalduntzea deuseztatzen dutenak, emakume libre eta aske bezala.

Emakumeok gizarteari **exijitzen diogu** eta horren alde egingo dugu behin eta berriro: egiturazko baterako hezkuntza edo koedukazioa eta sexuen askatasunean oinarritutako kultura; **salatzen dugu** erasotzaileen etika falta, batzuetan erasoak “talde-sexutzat” hartu ohi baitituzte inolako eskrupulorik gabe: **salatzen ditugu** neutralitate faltsuaz informatzen duten komunikabideak, pairatzen ditugun bortizkeriak normaltzen dituztelarik. **eskatzen dugu** Administrazioak berdintasunaren aldeko neurri zein legeak betearaztea arretaz begiratzeko.

Emakumeok bortizkeria matxistekin salatu, soluzionatu eta bukatzeko behar den lana gure gain hartzeaz kokoteraino gaude. 100 urte baino gehiagoko lana egin dugu ahalduntzearen bidean. Honek aldaketa behar du bai ala bai. Noiz exijituko diete erasotzaileei gu akatzeari uzteko? Noiz klase politikari kontzepzio patriarkalak alde batera utzi eta aurrekontuetan bortizkerien kontra borrokatzeko partidak arautuko? Noizko bortizkeria matxista jasan duten emakumeen laguntza baita genero indarkeriaren gaineko formazio feminista? Noiz demontre kenduko maskara erasotzaile orori? Noizko seinalatuko dituzte pertsona trafikatzaileak eta sexu esplotazioa? Noizko?

Emakumeok bakean bizi nahi dugu, alaitasunez, askatasunean, behingoz **jabe, jainko eta tratu txarrik gabe!!!**

Emakumeak izate hutsagatik gertatzen diren bortizkeria guztien kontra!

“BORTIZKERIA MATXISTEI:

ELKARRENGANAKO ELKARTASUNA ETA AUTODEFENTSA ANARKOFEMINISTA”